

Jesus Altuna

Euskaldunon Egunkaria, 1997-06-15: 3.

Askotan gizon faltaz kexatzen gara euskaldunok, eta gehien bat politikoaz ari garela uste dut. Zapuzketa hau zabaldua dago gure artean, eta agian ez da gezurra. Zientzilariak ere beharrezkoak ditugu ordea. On Joxe Migel joan zitzaigunean kezkatua zegoen Barandiaran Fundazioaren Patronatua, baina agorraldia heldu zen nonbait, eta azken hiru urteetan geldirik geratua zegoen; urtero zabaltzen ziren lanerako bekak gelditu egin ziren, eta bekekin batera, azterketak. Ihartuta geratu zen beste zerbait ere, Barandiaranek 1920an sortu zuen *Anuario de euskal folklore* aldizkari baliagarria; eta hemendik kanporakoak, joatez utzi dutenean trukeko nazioarteko honuntzarako zenbait ere geratu zen, legezko denez. Hemen ere zientzia da herdoiltzen ari dena. Hori konpondu beharko da. Jesus Altuna aukeratu dute zuzendari berri, eta izango du lana. Gainera aurrea doazenak Aranzadiren antropologia lanak dira, bere bi adarretan: antropologian eta arkeologi prehistorikoan eta historikoan. Oso diskretu izan da Altuna jauna, baina bistan da ezin dugula gure herria beti prestigio handia izan duen iharduera zientifikoak hiltzen utzi. Ez dira politikoak, baina hauek hainbat balio dutela hemen aitortzea ez da pekatu mortala.